



KIROLA  
GOZATU  
BIZI



# UROLAKO ESKOLA KIROLA

2020-21

**Kirol aniztasuna**



# UROLAKO ESKOLA KIROLA (UEK)

Azpeiti, Azkoiti eta Errezilgo ikastetxe eta udalek osatzen dute UEK kontseilua.

## ZER DA ESKOLA KIROLA

Eskola kirolaren funtsezko izaera hezitzailea eta prestatzailea izan behar da.

Heziketa-betekizun hori, bi zentzutan ulertu behar da:

- Eskola kirola, heziketa integrala lortzeko bitarteko gisa, gizakiaren alderdi guztiak modu harmoniatsuan eta orekatuan garatuz, bai alderdi psikologikoei (intelektual, emozional edota afektiboak, baloreak ...) bai fisikoei dagokionez, betiere gizarteratzean lagunduko dien moduan.
- Eskola kirola epe luzerako kirol heziketako prozesu gisa ulertu behar da. Kirol ezberdinak irakasteko eta ikasteko prozesuak garatzen direneko etapa gisa. Betiere jarduera fisikoa eta kirola egitearen joera guztiak haintzat hartuta.

## PARTE HARTZAILEAK

Azpeiti, Azkoiti eta Errezilgo ikastetxeetako 8tik 12 urte bitarteko (LH 3tik 6ra) ikasleak izango dira.



KIROLA  
GOZATU  
BIZI



## HELBURUAK

- 1.- Gure ikasleei harremanak egiteko erraztasunak eman eta guztien partaidetza sustatu.
- 2.- Ikasleei aisiarako eta jolaserako jarduerak eskaini, jolasean ikas dezaten.
- 3.- Bizi ohitura osasungarriak sustatu.
- 4.- Talde lana bultzatu.
- 5.- Norberaren gaitasun bereziak sustatu.
- 6.-Mugimenduen eta trebetasunen koordinazioa hobetu.
- 7.- Euskararen erabilera.
- 8.- Kirol espezialitate bakoitzaren oinarrizko arauak erakutsi.
- 9.- Norberarekiko, taldearekiko, epailearekiko, aurkariarekiko, joko arauerekiko errespetua sustatu.
- 10.- Osasun eta higiene ohiturak bereganatu.

## IZEN EMATEA

Ikasle bakoitzak bere ikastetxean emango du izena.

**Ikaslearen izen ematearekin:**  
**Eskola kirol kontseiluak eskeiniko duen kirol egutegiko ekintza guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzen da.**

## OHARRAK

**Asegurua:** Eskola Kiroleko egitarauko edozein jardueratan parte hartuko duten 8 urtetik gorako ikasleek poliza aseguruaren onuradun izango dira. Aseguru poliza horrek kirola egiteak dakartzan arriskuen erantzukizuna bermatuko du ondoko kasuetan: Erantzukizun zibiletan, gorputz atalen galerengatiko kalteordainak, elbarritasun eta heriotza. Aseguru horrek ez du inola ere osasun zerbitzua bere gain hartuko, hau familiako aseguruaren esku dago.

**Informazio gehiago:** Urola bailarako eskola kirolaren inguruko informazioa eskuragarri ondorengo web orrian:

<http://eskolakirola.weebly.com/>



### KIROLARI ONAREN DEKALOGOA

1. Kirola aisia da.
2. Denok gara garrantzitsuak.
3. Arauak bete egin behar dira.
4. Entrenatzaileak errespetatu behar ditut.
5. Nire aurkariak errespetatu behar ditut.
6. Epailearen irudia errespetatu behar dut.
7. Animoak eman ditzaket, inoiz ez iraindu.
8. Nire familiak eredu izan behar du.
9. Galtzen bai, baina baita irabazten ere jakin behar dut.
10. Nire goiburua garbi jokatzea da.

### HEZITZAILE ONAREN DEKALOGOA

1. Gogoratu, kirola aisia dela.
2. Umeak jolastu, ondo pasa eta ikasi egin behar dutela.
3. Umeek jarrera desegokiak baldin badituzte, saiatu bideratzen edo zuzentzen.
4. Emaitzak ez dira garrantzitsuenak; baloratu eta azpimarratu talde lana, zenbat ikasi duten, zenbat hobetu diren....
5. Modu egokian hitz egin, ez iraindu,keinu zatarrak saihestu. Animatu!!!
6. Errespetatu epaileak, aurkariak eta jokalaria. Umeentzat eredu zara.
7. Joko garbia erakutsi eta bultzatu.
8. Umeei galtzen erakutsi baina baita ere irabazten.
9. Ez ezazu sekula indarkeria justifikatu.
10. Arazoen aurrean norbera saiatu bideratzen eta ezin bada koordinatzailearengana zuzendu.

### IKUSLE ONAREN DEKALOGOA

1. Ez zara entrenatzailea, talde bakoitzak bere arduraduna du eta bere funtzioa errespetatu.
2. Errespetu guztiz jokatu.
3. Ez iraindu, ez errietarik egin. Denak berdin animatu!!!
4. Utzi libreki disfruta dezaten.
5. Jolasten eta ongi pasatzen ari dira.
6. Emaitza ez da garrantzitsuena.
7. Zure seme-alabentzako eredu izan.
8. Errespetatu ezazu epailea.
9. Ez ezazu sekula indarkeria justifikatu.
10. Zure goiburua "joko garbia" da.

# UROLAKO ESKOLA KIROLA ANTOLATZAILEAK



KIROLA  
GOZATU  
BIZI



Azpeitiko udala: Nerea Lopetegi

Azkoitiko udala: Lia Ariño

Azpeitiko Ikastola Ikasberri Koop: Alaitz Badiola

Karmelo Etxegarai Ikastola: Mikel Segurola

Iraurgi Ikastetxea: Joseba Lizarralde

Floreaga Ikastetxea: Mikel Pastrian

Xabier Munibe: Maialen Epelde

Errezilgo Herri Eskola: Lorea Rueda



## GOGORATU !!!!

- **Ikaslearen izen ematearekin:** Eskola kirol kontseiluak eskeiniko duen kirol egutegiko ekintza guztietan parte hartzeko konpromisoa hartzen da. Momentuz asteen zeharreko entrenamenduak soilik izango dira. Urtarriletik aurrera aurreikusten da asteburuetako kirol ekintza martxan hasia beti ere egoerak ahalbidetzen badu. Eta hori posible denean **LH3, 4, 5 eta 6ko ikasleen taldeak mixtoak** izango dira kirol modalitate guztietan.
- Balarako eskola kiroleko Protokoloa ikastolako web orrian zintzilikaturik egongo da denon eskuragarri.
- Ikasturte berezi honetan geletako burbuilak mantendu behar ditugunez, horrek aurreko urteetako antolaketa modua ezinezkoa egiten digu. Hori horrerla, aurten maila bakoitzari egun bat izendatu zaio eta taldeen ordutegia zein den zehazteko garaian zozketa bidez egun dugu.
- Gaur egungo egoera berezi honetan, ikaslearen familiari arduraz jokatzeko eskatzen zaio bere seme alabak sintomaren bat badu lehenbailehen komunikatu dezan, dagokion protokoloa martxan jar ahal izateko.

Eskola Kirolean parte hartu ahal izateko **DERRIGORREZKOA** izango da atzean dagoen izen emate orriaz gain Eusko Jaurlaritzak ezinbestekotzat jotzen duen dokumentua beteta ekartzea (**IV. ERANSKINA**). Bera gabe ezingo du parte hartu ikasleak.

# ENTRENAMENDUEN ANTOLAKETA

LH 3 B: Astelehena 17:00 – 18:10

Hezitzailea: Eneko Martija

- LH 3 A: Astelehena 18:15 – 19:25

LH 4 B: Asteartea 17:00 – 18:10

Hezitzailea: Eneko Martija

- LH 4 A: Asteartea 18:15 – 19:25

LH 5 A: Asteazkena 17:00- 18:10

Hezitzailea: Oier Alkorta

- LH 5 B: Asteazkena 18:15 – 19:25

LH 6 B: Ostirala 17:00 – 18:10

Hezitzailea: Oier Alkorta

- LH 6 A: Ostirala 18:15 – 19:25



---

## EMAN IZENA ESKOLA KIROLEAN

Izen abizenak: \_\_\_\_\_

Maila: \_\_\_\_\_ Gela: \_\_\_\_\_

Oharra: Zuen seme-alabak parte hartu nahi badu, arren eskatzen zaizu konfirmatu dezazun.

Parte hartuko du eskola kirolean

**Izen emate epea: Urriak 15**

Gurasoaren sinadura